# DIRU-BILKETA

| | |
|---|---|
| **a) Oinarri juridikoa** | DBEO: 6.1.c) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.<br><br>Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.<br><br>Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko Foru Lege Orokorra.<br><br>Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onesten duena. |
| **B) Tratamenduaren xedeak** | Barañaingo Udalak exijitu behar dituen tasa, prezio publiko, zerga eta zuzenbide publikoko gainerako ordainarazpenak kudeatzea, haiek kobratzeko helburu soilarekin. |
| **c) Kolektiboa** | Tasa, prezio publiko, zerga eta zuzenbide publikoko gainerako ordainarazpenak direla-eta ukitutako pertsona fisikoak, pertsona juridikoen ordezkariak barne. |
| **d) Datuen kategoriak** | Izen-abizenak, NAN/ IFZ/Nortasun dokumentua, helbidea eta telefono zenbakia.<br><br>Datu bankarioak.<br><br>Haren jarduera ekonomikoari eta kaudimenari buruzko datuak. |
| **e) Hartzaileen kategoria** | Finantza-entitateak.<br><br>Nafarroako Ogasuna. |
| **f) Nazioarteko transferentzia** | Ez dira datuen nazioarteko transferentziak aurreikusten. |
| **g) Ezeztatzeko epea** | Beharrezkoa den bitartean mantenduko dira eskatu ziren garaiko xedea betetzeko eta xede horretatik zein datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko, betiere abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legeak xedatzen duenari jarraiki. Gainera, artxibo- eta dokumentazio-araudian ezartzen diren epeak beteko dira. |
| **h) Segurtasun neurriak** | Ezarri diren segurtasun neurriak bat datoz Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren II. Eranskinean (Segurtasun neurriak) aurreikusten direnekin eta Barañaingo Udalaren datuen babeserako eta informazioaren segurtasunerako politika osatzen duten dokumentuetan azaltzen direnekin. |
| **i) Entitate arduraduna** | Barañaingo Udala. |